

i d a t z i a k

gonbitak, zorion agurrak, oharrak...




G

E

M

S

A



Eskuartearen duzun idatzi bilduma hau euskara zabaltzen eta normalizatzen laguntzeko prestatu dugu Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuok. Izan ere, geroago eta gehiago zarete euskara normaltasunez erabiltzeko ahalegin berezia egiten ari zaretenok.

Horregatik, bada, aurrerapauso bat gehiago eman nahi dugu eskualdeko udaletako euskara zerbitzuetatik eskaintzen dugun hizkuntza aholkularitza zerbitzuan, eta zuen beharrei erantzuteko idatzi sorta hau prestatu dugu. Guztia ahalik eta modurik errazenean azaltzen saiatu gara, zuentzat eguneroko jardunean euskarari toki handiagoa egiteko tresna erabilgarria izan dadin.

Aurkibidea

Sarrera	3	7 Bidaia agentziekiko gutuneria	39 - 44
1 Gutunak osatzeko esapideak	5 - 8	A Biletteak, logela eta gidaririk gabeko alokairu auto bat erreserbatzeko	40
A Hasierako agurrak	6	B Bidaia eta apartamentu erreserba deuseztatzea	41
B Bukaerako agurrak	7	C Hoteletan zerbitzu txarra izateagatik erreklamatzear	42
C Data edo eguna	8	D Bidaia behar ez bezala antolatzeagatik erreklamatzear	43
2 Gonbitak	9 - 16	8 Erreklamazioak	45 - 49
A Erakusketa	10	A Aseguru etxeari erreklamatzear	46
B Ezkontza	11 - 12	B Automobil tailerrari erreklamatzear	47
C Bataioa	13	C Bidaia behar ez bezala antolatzeagatik erreklamatzear	48
D Merienda	14	D Telefono konpainia bati erreklamazioa egiteko ereduak	49
E Lehen jaunartzea	15	9 Udalarekiko harremanetan herritarrek erabiltzen dituzten idatziak	51 - 61
F Haur jaioberria aurkeztea	16	A Erroldako datuak aldatzeko eskatzea	52
3 Zorion agurrak	17 - 20	B Obra txikiak egiteko lizentzia eskatzea	53
A Urtebetetze edo urtemugetan egitekoak	18	C Denda irekitzeko lizentzia eskatzea	54
B Semea edo alaba jaio delako	19	D Ibilgailuen gaineko zerga zuzentzeko eskatzea	55
C Gabonetan zoriontzekoak	20	E Kultura etxeko aretoa erabiltzeko eskatzea	56
4 Doluminak ematea	21 - 28	F Oposizio baten kanpoan utzi edo baztertu izanaren kontrako erreklamazioa	57
A Doluminak ematekoak	22	G Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea	58
B Eskerrak ematekoak	23 - 24	H Mahaiaik eta aulkiak bide publikoan jartzeko baimen eskatzea	59
C Oroigarriak	25 - 27	I Errotuluak, erakusleihoak eta toldoak jartzeko lizentzia eskatzea	60
D Urteurrenekoak	28	J Hirigintza informazioa eskatzea	61
5 Eskolako idatziak	29 - 32		
A Haurra eskolara joan ez izana azaltzea	30 - 31		
B Eskaera irakasleari	32		
6 Etxe atariko komunitateen idatziak	33 - 38		
A Oharrak	34 - 35		
B Atariko auzokideen bilera deia	36		
C Atariko auzokideen bilera akta	37 - 38		

1

GUTUNAK OSATZEKO ESAPIDEAK



A Hasierako agurrak

B Bukaerako agurrak

C Data edo eguna


A

Hasierako agurrak

<p>Idatzietan hasierako agurra idazteko era asko daude. Beti ere, kontuan hartu behar da nori bidaltzen zaion gutuna edo idatzia eta zer-nolako tratamendua eman nahi zaion. Hona hemen adibide batzuk:</p>		
	<p>1 ▶</p> <p>Eredu formala/neutroa</p>	<p><i>Jauna:</i></p> <p><i>Andrea:</i></p> <p><i>Jauna/Andrea:</i></p> <p><i>Jaunak:</i></p> <p><i>Andreak:</i></p> <p><i>Agur t´erdi:</i></p> <p><i>Jaun hori:</i></p> <p><i>Andre hori:</i></p>
	<p>Eredu hurbilagoa</p> <p>2 ▼</p> <p><i>Adiskidea:</i></p> <p><i>Adiskideak:</i></p> <p><i>Adiskide hori:</i></p>	
	<p>Oharra: “Jauna” edo “Andrea” hitzei “agurgarri” eta antze-koak gehitu izan zaizkie, baina ez da beharrezkoa, “Jauna” edo “Andrea” hitzek badute-eta kortesiazko kutsua. Bestalde, gutunaren edo idatzia hartzailerak pertsona bakarra baldin bada, eta ez badakigu gizonetako edo emakumezko den, orduan “Jauna/Andrea” erabiliko dugu.</p>	



Bukaerako agurrak

Hasierako agurraren kasuan aipatu dugun bezala, bukaerako agurra idazteko ere kontuan hartu behar da **nori** bidaltzen zaion idatzia edo gutuna eta zer-nolako **tratamendua** eman nahi zaion. Hona hemen adibide batzuk:

<p>1</p> <p>Eredu formala</p>	<p><i>Adeitasunez, agur,</i></p> <p><i>Begirunez, agur,</i></p>
<p>Eredu neutroa</p> <p>2</p>	
<p><i>Horrenbestez, agur,</i></p> <p><i>Besterik gabe, agur,</i></p>	
<p>3</p>	<p>Eredu hurbilagoa</p>
	<p><i>Agur bero bat,</i></p> <p><i>Hurrengo arte,</i></p> <p><i>Ondo izan eta ikusi arte</i></p>

C

Data edo eguna

Gehien erabiltzen diren ereduak hauek dira:				
1				
Antzuolan, 2002ko azaroaren 7an		3		
2		Oñati, 2002-11-07		
Arrasate, 2002ko azaroaren 7a				

2

GONBITAK

- A** Erakusketa
- B** Ezkontza
- C** Bataioa
- D** Merienda
- E** Lehen jaunartzea
- F** Haur jaioberria aurkeztea

1



*Eskoriatzan uztailaren 22tik abuztuaren 15era arte egingo dudan argazki erakusketa-
ren inauguraziora etor zaitezten gonbidatzen
zaitut. Erakusketaren inaugurazioa Kultura
Etxeko aretoan izango da uztailaren 22an,
arratsaldeko 7etan.*

*Egun horretan gure artean izango zarela-
koan, eskerrik asko,*

Eskoriatzan, 2002ko uztailaren 15ean

Ezkontza

Julen Madera Ortiz eta Luisa Etxebarria

Atsegin handiz gonbidatzen zaituztegu gure ezkontzara. Arantzazuko Ama Birjinaren basilikan ospatuko dugu, apirilaren 12an, iluntzeko 8etan. Horren ostean, Zelaizabal jatetxean afalduko dugu.

Antzuolan, 2002ko uztailaren 1ean

1



2

Lorenzo eta Martina

Atsegin handiz adierazten dizuegu ezkondu egingo garela irailaren 12an, arratsaldeko 8etan, La Asunción elizan.

Gero, El Poblet jatetxean elkartuko gara, koktela eta afaria izango dugu eta.

Etorriko zaretelakoan,

Tel. 943 72 81 62

Lorenzo *Martina*

3

Gure gurasoekin batera

Jose eta Karmen & Manuel eta M.Paz

David eta Sandra

Atsegin handiz gonbidatzen zaituztegu gure ezkontzara; apirilaren 28an izango da, eguerdiko ordubatean, San Andresko basilizan.

Bazkaria: Errota jatetxean

Konfirmatzeko

David .034560045

Sandra 934763434

Aramaion, 2001ean



4

Pancho eta Carlota

Luzaroan zain egon eta gero, azkenean berandu baina seguru.

Gonbidatuta zaudete gure ezkontzara; irailaren 28an izango da, zapatuan, arratsaldeko 6etan, Elgetako elizan.

Gero, hori ospatzeko, afaria eta dantza saioa, Arrasate hoteleko saloietan.

Zain izango gaituzue.

C


Bataioa

1



*Julen Madera Ortizek eta Luisa Etxebarriak
atsegin handiz gonbidatzen zaituzte alaba
Mirenen bataio eguneko festara. Datorren
domekan, hilak 8, ospatuko dugu
Aretxabaletako parrokian, eguerdiko 12etan.*

Aretxabaletan, 2002ko uztailaren 1ean



1

Nire laguntxoei:

Hilaren 15ean nire eguna izan zen eta hori ospatzeko txokolatada egingo dugu datorren eguenean Alkartu soziedadean, arratsaldeko 6etan.

Etortzen bazara, ondo-ondo pasatuko dugu eta bolo-bolo egingo dugu.

Zure lagun Ainara,



Arrasaten, 2002ko abenduaren 22an

Nire laguntxoari:

Bihar nire urtebetetze eguna izango da eta gura dut zu nirekin egotea eta elkarrekin ondo pasatzea. Etorri gure etxera arratsaldeko 5etan eta txokolatea jan eta elkarrekin jolas egingo dugu.

Bihar arte,

Ainhoa Lasa

Antzuolan, 2002ko abenduaren 23an

2



Lehen jaunartzea

Jon Muniain Lopez haurrak lehenengoz hartu du Eukaristiaren Sakramentua, 2000ko urriaren 9an, Oñatiko San Miguel elizan.

Oñatin, 2000ko urriaren 9an



1

2



Jone Muniain Lopez haurrak bere lehen jaunartzea ospatu du 2002ko maiatzaren 10ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokian.

Arrasaten, 2002ko maiatzean

3

Miren Barrutiabengoa

Nire lehenengo jaunartzearen oroigarria

San Juan Bataiatzailea eliza

2002-10-2



1

Kaixo!

2000ko abenduaren 23an jaio nintzen

Ainhoa dut izena

Gurasoak Luis eta Aintzane ditut

Jaiotzean 3 kg eta 800 gr-ko pisua nuen

Aita-ama pontekoak

Amaia eta Asier ditut

Beñat

2003ko urtarrilaren 4an jaioa

arratsaldeko 15:36an

3,800 kg-ko pisuarekin

Oso potxoloa da

Amaia eta Koldo

2



3

ZORION AGURRAK

- A** Urtebetetze edo urtemugetan egitekoak.
- B** Semea edo alaba jaio delako.
- C** Gabonetan zoriontzekoak

A


Urtebetetze edo urtemugetan egitekoak

<p><i>Jaso ezazu gure familiaren izenean zorion agurrik beroena. Urte askoan horrelaxe jarraitu dezazula bihotz-bihotzez.</i></p>	<p>1</p>		<p>2</p>
	<p><i>Zorionak eta urte askotarako!</i></p> <p><i>Jarraitu jator eta denon lagun, orain arte bezala. Agur eta musuak.</i></p>		
			
<p>3</p> <p><i>Bihar zure eguna dela jakin dut eta bihotz-bihotzez opa dizut egun zoragarria eta zure etxeokekin ondo-ondo pasatzea.</i></p>		<p><i>Izan zaitetz zorionsu zure urtebetetze egunean eta urte askoan horrelaxe jarraitu, jator eta zintzo zure lagunekin eta hain maite dituzun zure etxeokekin.</i></p>	
			<p>4</p>

B

Semea edo alaba jaio delako









Miren eta Jonentzat:

Jaso ezazue gure zorionik beroena. Pozaren pozez ibiliko zarete, bat-batean aita-amak izatea ez da eta egunero gertatzen. Egoera hori berezi-berezia da eta, aldi berean, ederra eta handia, bizitzan sentitu daitekeen gauzarik zoragarriena.

Laster izango gaituzue hor bisitan, zuen alabatxoa ezagutzeko. Deituko dizuegu joan aurretik.

Berriro ere zorionak eta ondo izan,

Arrasaten, 2002ko uztailaren 1ean

<p><i>Gabon zorionsuak eta urte berri on.</i></p>	<p>1</p>		<p>2</p>
		<p><i>Eguberri on eta urte zorionsua izan dezazuela.</i></p>	
	<p><i>Igaro Gabonak bakean eta pozik, eta urte berri on.</i></p>		
<p><i>Gure zorionik zintzoena Gabon hauetan, eta urte berrian osasuna opa dizut.</i></p>	<p>4</p>	<p><i>Gabon egun hauek indarberritu dezatela gizon-emakumeen elkartasun sentimendua, eta urte berriak zoriona eta ongizatea ekar ditzala gurera eta besteenera, eta berdintasuna gizon eta emakume guztiontzat.</i></p>	
			<p>5</p>

4

DOLUMINAK EMATEA

A Doluminak ematekoak



B Eskerrak ematekoak

C Oroigarriak

D Urteurrenekoak

A

Doluminak ematekoak

<p>1 ▶</p>	<p><i>Sekulako samina dugu zuen aita hil dela jakin eta gero. Zuen atsekabearekin bat egiten dugu eta haren aldeko ospakizunetan parte hartuko dugu.</i></p>	
<p><i>Benetan atsekabeturik gaude, zure emaztea hil dela jakin dugu eta. Badakizu estiman genuela. Hura galdu eta ulertzen dugu zure samina eta atsekabea; gurea ere handia da, laguna galdu dugu eta.</i></p> <p><i>Ez daukagu berbarik zu kontsolatzeko, baina jakizu gure adiskidetasuna duzula eta gure barru-barruan gogoratuko dugula.</i></p>	<p>2 ◀</p>	
		<p>3 ▼</p>
	<p><i>Atsekabeturik gaude zuen ama hil delako. Emakume ona zen. Zuen saminarekin bat egiten dugu. Bene-benetan doluminak. Besarkada handia.</i></p>	

Doluminak ematekoak

4



Atsekabe handiz jakin dugu gure lagun eta zuen ahizpa Inesa hil dela. Gaitza egiten zaigu gure sentimenduak adieraztea, denok maite genuen-eta, beti zegoen prest denoi laguntzeko. Zenbat une gozo hura gogora ekartzean! Gure bihotzean eramango dugu beti.

Zuen atsekabean eta hura gogoratzean lagundu gura dizuegu.

Besarkada handia.

5

Triste gaude Jon hil dela jakin dugulako. Jaso ezazu gure doluminik sentikorrena eta eskatzen diogu jaungoikoari haren alde egin dezan eta bakea eta lasaitasuna eman diezazkizun.

6



Gure samina adierazi nahi dizugu, semea galdu duzulako. Gogoan dugu zein ona eta jatorra zen. Zurekin bat egiten dugu eta gogoan izango dugu haren aldeko ospakizunetan.

1



BIXENTE GOIKOMENDIA

Jaso ditugun atsekabezko adierazpenak eta haren alde eskaini dituzuen otoitzak eskertzen dizkizuegu.

Eskoriatza, 1999ko azaroaren 14a



BIXENTE GOIKOMENDIA

Senitartekoak (emaztea eta seme-alabak)




Eskerrak ematea.

Aretxabaleta, 2003ko apirilaren 5a

2

C

Oroigarriak

<p>1</p> 	<p><i>Miren Solobenta Altxorta</i></p> <p>1923 – 6 – 23 1999 – 5 – 30</p>	
	<p>Zure oroimenak indartzen gaitu.</p>	<p>2</p> <p>3</p>
<p><i>Miren Solobenta Altxorta</i></p> <p>Jaio zaigu hiltzeko 1923 – 6 – 23 Hil zaigu bizitzeko 1999 – 5 – 30</p>	<p>3</p> <p>Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.</p>	<p>Ni hilen naiz baina maitasunak bizirik dirau.</p>
<p>Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.</p>	<p>4</p> <p>6</p>	<p>5</p> <p>7</p> 
	<p>Zure eskuetan uzten dugu Jauna guk maite genuena.</p>	




C

Oroigarriak

 <p>8</p>		<p>9</p>
<p>Hil zara baina biziko zara zu beti gure gogoan. itxaropena dugu biltzeko berriz zurekin zeruan.</p>		<p>Samindurik dugu bihotza, motel bizitzaren garra. Gaur faltan sumatzen dugu zuk emandako indarra.</p>
<p>10</p>	<p>▶ Joan zinen gu hemen utzita</p>	<p>Ez agurrik, ez adiorik gero arte bakarrik.</p>
<p>11</p>	<p>baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.</p>	 <p>12</p> <p>13</p>
<p>▼</p> <p>Ez niri agur esan gero arte baizik.</p>		<p>▲</p> <p>Maitasuna ez da inoiz itzaltzen. Eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.</p>
<p>Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.</p>	<p>◀</p> <p>14</p>	

C

Oroigarriak

	<p>15</p>	<p>▶ <i>Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.</i></p>	
<p>17</p>	<p>▼ <i>Betiko izango zaitugu gogoa- an.</i></p>		
<p>▼ <i>Elkartuko garen esperoan.</i></p>	<p>▶ <i>Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin oroimenean izango zara zu beti gurekin.</i></p>	<p>18</p>	
<p>19</p>			
<p>▼ <i>Laster arte ezpainetan utzi gaituzu penetan orain gure ametsetan bizirik zaude benetan zeruko izarretan eta gure bihotzetan.</i></p>	<p>Nahiz eta urrun joan mundu honetatik ez duzu alde egingo gure bihotzetatik.</p>	<p>20</p> 	<p>▶ <i>Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.</i></p>
<p>▶ <i>Betiko bakea eta zoriona heldu da zure barrenean.</i></p>	<p>21</p>	<p>▶ <i>Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.</i></p>	

1

JUANA LARRAÑAGA

Urteurren meza 2002ko abenduaren 2an

Eguerdiko 12:30ean

Eskoriatzako San Pedro Apostoluaren elizan.

*Etortzen zaretenoi
aldez aurretik, eskerrik asko.*



5

ESKOLAKO IDATZIAK

A Haurra eskolara joan ez izana azaltzea

B Eskatera irakasleari

A

Haurra eskolara joan ez izana azaltzea



1

2003ko urtarrilaren 7an

Gaur goizean Mikelek dentistarenera joan behar du. Eskolara 11etan joango naiz bila. Arratsaldean joango da eskolara.

Ane Elejalde
(Mikelen ama)

[Signature]

A

Haurra eskolara joan ez izana azaltzea

2

Aramaion, 2003ko urtarrilaren 12an

*Aurreko aste osoan Ane ez da eskolara joan
barizela eduki duelako. Medikuaren gomen-
dia izan zen ez joatea. Astean egindako
eskolako lanak ematea eskertuko nizuke,
atzeratutakoa begiratzeko.*

Xabier Aranzabal

Xabier Aranzabal



1

Andereno Rosa:

Kirola egiteko eramaten duen poltsa galdu du Iratik, zapatilak eta txandala ere bai. Esan dit eskolan lapurtu diotela, ez baitzuen eskolatik atera. Solfeoa begiratu dugu ea hantote zegoen, baina ez dugu aurkitu. Eskertuko nizuke eskolan begiratuko bazenu eta ea norbaitek ezer dakien galdetuko bazenu.

Mila esker



Elena Garai



6

ETXE ATARIKO AUZOKIDEEN KOMUNITATEA

- A** Oharrak
- B** Atariko auzokideen bilera deia
- C** Atariko auzokideen bilera akta

 <p>1</p> <p>2</p>	<p>Ohar honen bidez adierazten dizuet, datorren martitzenean, hilak 20, Naturgas enpresako teknikariak gure atarian izango direla, gas instalazioa aztertzeko. Goizeko 10:00etan hasiko dira, lehenengo solairuan hasi eta goikora iritsi arte.</p> <p>Bergaran, 2002ko urtarrilaren 9an</p>
<p>Bihar, eguena, arropa batzeko kanpaina bat egingo du Karitas-ek eta horretarako arratsaldeko betan pasatuko dira ataritik. Atarian bertan, poltsan sartuta, utzi ditzakezu arropa horiek.</p> <p>Aretxabaletan, 2002ko otsailaren 28an</p>	 <p>Egun bi barru atariko kristalak garbituko dituzte Arrasate Garbiketako enpresakoek. Hortaz, jakizu goizean izango direla atarian.</p> <p>Eskoriatzan, 2002ko uztailearen 31n</p>
<p>Kalean obra batzuk egin behar dituztela eta jakizu datorren astean, hilaren 8an, goizeko 10:00etatik 13:00ak arte ez dugu la argirik izango gure etxeetan. Ohartxo hori pasatu digu Iberdrolak.</p> <p>Bergaran, 2002ko ekainaren 21ean</p>	<p>3</p> <p>4</p>

A

Oharrak

Auzokide hori:

Badakizu 10 urte beteko direla laster etxea egin zenetik eta oraintxe erreklamatu behar ditugula okerrak eta akatsak, apurtu direnak eta antzemandako akatsak. Hortaz, komeni da egun hori baino lehenago eskaerak niri pasatzea.


Oñatin, 2002ko apirilaren 10ean

Atariko arduraduna

5



6



Orain erabiltzen ari garen antena parabolikoak akats batzuk izan ditu, eta horiek konpondu eta gero aldaketa txiki batzuk izan ditugu telebista kateetan. Aurrerantzean, GoiTB eta ETB1 33. eta 56. kanaletan ikusiko ditugu.

Eskoriatzan, 2002ko irailaren 7an

Garbiketa egiten duen pertsonak adierazi digunez, datorren hilean, zapatu eta martitzenetan garbituko ditu atariko eskailerak.

Arrasaten, 2002ko martxoaren 5ean

7



1



BILERA DEIA

Idatzi honen bidez dei egiten dizuet gure atariko bilerara etor zaitezten.

Eguna: 2002/10/28

Ordua: 20:00

Tokia: ataria

Aztergaiak:

1. Aurreko bilerako akta onartzea.
2. Igoailu berria jartzea.
3. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.
4. Kuotak igotzea.
5. Eskaerak eta galderak.

Gaien garrantzia ikusita, guztiok egotea komeni da.

Arrasaten, 2002ko uztailaren 3an

1



BILERA AKTA

Nork deitua: idazkaria

Eguna: 2002/10/28 (astelehena)

Ordua: 20:30

Tokia: ataria

ETORRI DIRENAK.

Maribi Etxebeste.

Maite Arriola.

Juan Luis Cebrián.

Marian Gómez.

Luis M^a Ruiz de Egino.

Beñat Uribarren.

Aztergaiak:

1. Aurreko bilerako akta onartzea.
2. Igoailu berria jartzea.
3. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.
4. Kuotak igotzea.
5. Eskaerak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak.

1. Akta onartzea.

Atariko arduradunak bilera hasi du, eta aurreko bilerako akta irakurri du.

Erabakia: batzordekideek aurreko bilerako akta onartu dute aho batez.



2. Igogailu berria jartzea.

Igogailu berria jartzeko jasotako aurrekontuen berri eman die atariko arduradunak batzordekideei.

Erabakia: aurrekontu guztiak komentatu eta eztabaidatu dira. Jaso enpresak aurkeztutakoa onartu da, prezio ona eskaintzeaz gainera, saldu ondoko zerbitzu ona du eta.

3. Aurreko urteko diru kontuen berri ematea.

Joan den urteko sarrera-irteeren berri eman du atariko arduradunak (ikusirik eranskina). Sarrerak 10.000 €-koak izan ziren. Irteerak, berriz, 8.523 €-koak. Hortaz, bada, kontuan izanda iaz urte hasieran 3.250 € zeudela atariko auzokideen komunitatearen kartilan, orain 4.727 € daude.

4. Kuotak ordaintzea.

Igogailu berria jartzeko ordaindu beharreko kuotak eta epeak aurkeztu ditu atariko arduradunak.

Erabakia: kuotak %30 igotzea proposatu du eta auzokide guztiek onartu egin dute, bik izan ezik: 1A eta 1B pisukoek. Esan dute ez dutela igogailurik behar eta horregatik ez dutela ordainduko. Hori dela-eta lehendakariak proposatu du auzokide bi horiek orain arteko kuota ordaintzen jarraitzea, baina igogailua erabiltzeko giltza jartzea. Bi proposamenak onartu dira. Horren ondorioz, kuotak %30 igotzea eta igogailuari giltza jartzea erabaki dute.

5. Eskaerak eta galderak.

Ez da egon ez eskaerarik ez galderarik.

Amaiera: bilera amaituta agiri hau egin dut, zer eztabaidatu eta zer erabaki dugun jasotzeko.

Arrasaten, 2002ko urtarrilaren 28an

Maite Arriola atariko arduraduna



7

BIDAIA AGENTZIEKIKO GUTUNERIA

- A** Billeteak, logela eta gidaririk gabeko alokairu auto bat erreserbatzeko.
- B** Bidaia eta apartamentu erreserba deuseztatzea.
- C** Hoteletan zerbitzu txarra izateagatik erreklamatzeari.
- D** Bidaia behar ez bezala antolatzeagatik erreklamatzeari.

A

Billeteak, logela eta gidaririk gabeko alokairu auto bat erreserbatzeko

1



Arrasaten, 2002ko ekainaren 10ean

Bidean Bidaiak

Maalako errabala, 4

20500 Arrasate

Agur t'ardi:

Nire izenean hegazkin billete bi erreserbatzeko eskatzen dizut,

Bilbo-Dublin hegaldian, turismo klasean, datorren abuztuaren 7an.

Biko logela bat behar dugu, bainudun gela, hiriko erdialdean.

Gidaririk gabeko auto bat ere alokatu nahi dugu, inguruko

lekuak-eta ezagutu eta hor zehar ibiltzeko. Eskertu genizueke hori

lortu eta hara iristen garen egunean bertan gure esku izatea hote-

lean bertan.

Zuen berrien zain, adeitasunez agur.

Izp.: Jon Zuazartazar

PD: Hotela, ahal bada, izan dadila hiru edo lau izarrekoa.

B

Bidaia eta apartamentu erreserba deuseztatzea

Oñatin, 2002ko maiatzaren 6an

Ibili Bidaiak
Atzeko kalea, 4
20560 Oñati

Agur t'erdi:

Mesedez eskatzen dizuegu deuseztatzeko inailaren 14tik 28ra Lanzarotera joateko eskatuta genuen hegaldi eta apartamentu erreserba.

Ustekabean izan ditugun arrazoi batzuen ondorioz, ezinezkoa zaigu aurten Lanzarotera joatea egun batzuk ematera.

Esaiguzue, mesedez, erreserba horiek deuseztatu izanagatik gasturik ordaindu behar ote dugun eta horiek ordaintzeko modua.

Begirunez, agur t'erdi.

Izp.: Jone Madinabeitia



1



C

Hoteletan zerbitzu txarra izateagatik erreklamatzea

1



Aretxabaletan, 2002ko ekainaren 10ean

Mundutik Bidaiak

Durana kalea, 6

20550 Aretxabaleta

Agur t'ardi:

Penaz idazten dizuegu gutun hau, baina uste dugu bidaiaren antolaketari buruz ditugun iritziak plazaratu behar ditugula.

Programa sekulakoa zen, baina porrot egin dute hotelek, eskasak ez, txar-txarrak zirelako. Herri batzuetan izan ezik, ez ziren zuek esandako kategoriakoak, eta are gutxiago zeukaten prezioa.

Espero dugu gure kexa kontuan hartzea, eta pentsatzen dugu ez dela bakarra izango.

Adeitasunez agurtzen zaituztegu.

Izp.: Miren Axpe

A handwritten signature in black ink, consisting of a series of connected, somewhat jagged lines that form the name 'Miren Axpe'.

**Bidaia behar ez bezala antolatzeagatik
erreklamatzea**

Bergaran, 2002ko ekainaren 10ean

*Bidean bidaiak
Barrenkalea, 8
20570 Bergara*

Sentitzen dugu kexa idatzi hau egin behar izatea, baina ez gaude ezelan ere pozik zuen agentziaren bidez Bartzelonara egindako bidaiarekin.

Hotelak txarrak ziren eta programatutako irteerei buruz, batzuk ez ziren batere interesgarriak eta beste batzuk, berriz, oso gaizki antolatuta zeuden.


Ez dakigu beste kexarik jaso duzuen edo ez, baina jakin ezazue bidaiari askok adierazten zuela hemen aipatu dugun guztia.

Edozelan ere, ez dugu kexarik zuen bidaia agentziari buruz, uneoro arreta berezia jaso dugu eta.

Adeitasunez agurtzen zaituztegu.

Izp.: Mikel Arana

Jean Munn



8

ERREKLAMAZIOAK

- A** Aseguru etxeari erreklamatzea
- B** Automobil tailerrari erreklamatzea
- C** Bidaia behar ez bezala antolatzeagatik erreklamatzea
- D** Telefono konpainia bati erreklamazioa egiteko eredua

ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK**Izen-abizenak:** Joxemari Aldanondo Galdos**Helbidea:** Ibargarai kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Bergara **PK:** 20570**Nortasun agiria:** 56.887.673X **Telefonoa:** 943763262**Noren ordezkari:**

1

ERREKLAMAZIOA JASO DUENAREN DATUAK**Enpresaren izena:** Le Bon Vivant Aseguruak**Helbidea:** Arruriaga kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Bergara **PK:** 20570**IFZ/NA zk.:** 56.887.673L **Telefonoa:** 943763262**Jarduera:** Aseguru enpresa**ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOTIAK ETA HELBURUA**

Sukaldean ura ateratzen zenez, aseguru etxera deitu nuen. Iturgina berehala etorri zen eta lurra altxatu beharra izan zuen handik pasatzen zen hodia konpontzeko. Hodia konponduta geratu zen baina lurreko azulejoek sortu didate arazoa. Sukalde erdi-erdian zulatu behar izan zuten eta gero jarri dizkidaten azulejoak desberdinak dira. Itxura denez ez dituzte lehen zeudenak bezalakoak aurkitu eta horregatik jarri dituzte desberdinak.

Sukaldeak oso itxura txarra dauka eta uste dut lur guztia aldatu beharko luketela, ez baita nire kontua azulejo berdina aurkitu ez izana.

Aseguru etxeak ez dit jaramonik egiten. Hodia bera eta hark sortutako kaltea konpondu dutela diote. Nik sukalde zegoen bezala uztea besterik ez dut eskatzen. Izan ere, orain itxura txarra dauka. Lurra aldatzen ez badute neuk aldatu beharko dut, baina horretarako zertarako ordaindu aseguru?

ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko urriaren 27an

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK (FAKTURAK, EGIAZTAGIRIAK,.....)

Polizaren kopia

Polizaren ordainagiria

Izp.



B

Automobil tailerrari erreklamatzea

ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK**Izen-abizenak:** Miren Jone Barrutia Lopez de Okariz**Helbidea:** Loramendi kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Arrasate **PK:** 20500**Nortasun agiria:** 56.887.673J **Telefonoa:** 943763262**Noren ordezkari:****ERREKLAMAZIOA JASO DUENAREN DATUAK****Enpresaren izena:** Ibili Auto Konponketak**Helbidea:** Elkano kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Arrasate **PK:** 20500**IFZ/NA zk.:** 56.887.673D **Telefonoa:** 943763262**Jarduera:** Auto konponketa**ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOTIAK ETA HELBURUA**

Autoa tailerrera eraman nuen frenoetako arazoa konpontzeko. 150 €-ko aurrekontua egin zidaten eta nik onartu egin nuen. Konpondu ondoren autoa jaso nuen aurrez ordainketa eginda.

Astebetera frenoetako arazoak izan zituen autoak eta berriro tailerrera eraman nuen. Jasotzera joan nintzenean beste 150 € ordaindu behar izan nuen. Gauza bera bi aldiz ordaintzen ari nintzela esan nien, baina haiek esan zidaten, ordaintzen ez banuen, autoa ezin nuela atera. Gero, erreklamazio orriak eskatu nituen eta esan zidaten ez zeukatela horrelakorik. Tailerrekoen jarrera ikusita ordaindu eta alde egitea erabaki nuen.

Beraz, zera eskatzen dizuet, bitartekaritza egiteko bigarren konponketaren fakturaren zenbatekoa itzul diezadaten eta erreklamazio orriak jar ditzaten "Ibili auto konponketak" tailerrean.

ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko irailaren 12an

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK(FAKTURAK, EGIAZTAGIRIAK,.....)

Lehenengo faktura

Bigarren faktura

Izp.



1

Bidaia behar ez bezala antolatzeagatik erreklamatzeari

ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Anixe Freire Castro

Helbidea: Kale Barria, 2-7. eskuma **Herria:** Oñati **PK:** 20560

Nortasun agiria: 56.887.673Ñ **Telefonoa:** 943783262

Noren ordezkari:

ERREKLAMAZIOA JASO DUENAREN DATUAK

Enpresaren izena: Ibili Bidaiak

Helbidea: Kale Zaharra, 2-7. eskuma **Herria:** Oñati **PK:** 20560

IFZ/NA zk.: 12.867.644 **Telefonoa:** 943 76 32 62

Jarduera: Bidaia agentzia

ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUA

Ezkon bidaia dela eta, bidaia bat kontratatu genuen: Mexikon zehar zirkuitua eta Cancun-en egonaldia. Zirkuiturako 5 izarreko hotelak aukeratu genituen eta hala jasotzen zuen kontratuak. Hirugarren egunean gauean berandu iritsi ginen hotelera eta sartuaz bat konturatu ginen ez zela 5 izarrekoa. Berandu zen eta ez zegoen aldaketa haren berri emango zigun inor. Lo egitea erabaki genuen, ezin genuen ordu haietan ezer egin. Ez zen hemen bukatu guztia, hurrengo egunean zirkuituak jarraitzen zuen eta ez ziren bila etorri, antza denez, ez zekiten gu beste hotel horretan geundenik. Egun osoa galdu genuen eta guk ordainduta geneukan egun horretako irteera. Gure kexa adierazi genion hango gidari, baina hona etorritakoan egiteko adierazi zigun hark. Bidaia kontratatu genuen agentziara jo eta haien ardua ez dela esan digute. Han egin behar omen genuen kexa. Orain ez omen dago irtenbiderik. Guk, ordaindutako 5 izarreko hotelaren eta egin ez genuen irteeraren kostua errekupearatu nahi dugu, eta horretarako jotzen dut zuengana.

ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko irailaren 10ean

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK

Kontratua. Ordainagiria. Guk aukeratutakoa ez zen hotelaren foilettoa.

Izp.

Anixe

Telefono konpainia bati erreklamatzea

ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Amaia Fuentes Fuentes

Helbidea: Labiena baserria **Herria:** Bergara **PK:** 01160

Nortasun agiria: 72.117.643F **Telefonoa:** 945465193

Noren ordezkari:

ERREKLAMAZIOA JASO DUENAREN DATUAK

Enpresaren izena: Euskaltel

Helbidea: San Juan kalea, 2-7. eskuma **Herria:** Bergara **PK:** 20570

IFZ/NA zk.: 56.887.673S **Telefonoa:** 943763262

Jarduera: Aseguru enpresa

ERREKLAMAZIOAREN ARRAZIOIAK ETA HELBURUA

Telefono konpainia batekin daukat kontratatuta 934382437 linea. Azken bi hileko faktura jaso dut, 360 €-koa. Okerren bat dago faktura horretan. Izan ere, gure etxe-ko gastua ez da inoiz 70 € baino handiagoa izan. Ikusten duzuen bezala alde izugarria da. Gainera, egindako deien zerrenda aztertzerakoan, konturatu gara abuztuan egin direla deiak eta, gainera, 902 zenbakietara. Gu abuztuan ez gara etxean egon, beraz, ezin izan dugu deirik egin. Internet-ik ere ez daukagu etxean

Erreklamazioa telefonoz egin dut eta haiek esaten didate hori dela nire telefono zenbakiaren gastua eta ez daukadala zer eginik. Arazoa konpondu gabe dago eta beldur naiz hurrengo fakturan zer etorriko ote den.

Beraz, bi gauza eskatzen ditut: azkeneko faktura zuzendu dezala telefono konpainiak eta deiak nork egin dituen aztertu dezatela, horrelakorik gehiagotan gerta ez dadin.

ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2000ko irailaren 27an

GEHITZEN DITUDAN AGIRIAK

Aurreko bi fakturak. Abuztuko hoteleko faktura.

Izp.





1

UDALAREKIKO HARREMANETAN HERRITARREK ERABILTZEN DITUZTEN GUTUNAK

- A** Erroldako datuak aldatzeko eskatzea
- B** Obra txikiak egiteko lizentzia eskatzea
- C** Denda irekitzeko lizentzia eskatzea
- D** Ibilgailuen gaineko zerga zuzentzeko eskatzea
- E** Kultura etxeko aretoa erabiltzeko eskatzea
- F** Oposizio baten kanpoan utzi edo baztertu izanaren kontrako erreklamazioa
- G** Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea
- H** Mahaiak eta aulkiak bide publikoan jartzeko baimen eskatzea
- I** Errotuluak, erakusleihoak eta toldoak jartzeko lizentzia eskatzea
- J** Hirigintza informazioa eskatzea

A

Erroldako datuak aldatzeko eskatzea



1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Joxemari Gartzia Lopez

Helbidea: Fraiskozuri kalea, 2-7. eskuina

Nortasun agiria: 56.887.673C

Noren ordezkari:

AZALPENA

Erroldan nire helbidea Bidekurtzeta kalea, 1. B dela adierazten da, baina dagoeneko bost hilabete pasatu dira Fraiskozuri kalea 2-7. eskuinera aldatu nintzenetik.

ESKAERA

Honenbestez eskatzen dizut nire lehenagoko helbidearen datuak kentzeko erroldatik eta berriak jartzeko.

Bergaran, 2002ko martxoaren 15ean

Izp.:

Obra txikiak egiteko lizentzia eskatzea

1



ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Jesus Telleria Madariaga

Helbidea: Ibargoia kalea, 2-2. esk.

Herria: Aramaio

NA zk.: 74568467X

Tel.: 945447700

AZALTZEN DUT:

Hainbat obra egin gura dut bizi naizen etxebizitzan: komuna konpondu eta berria egin, sukaldea berritu eta garajea egokitu.

Horregatik guztiagatik,


ESKATZEN DUT:

Dagozkion tramiteak egin eta gero, obra lizentzia emateko, lehenbailehen hasi gura ditugu obrak eta.

Eskatu dudana onartuko duzuelakoan, agur.

Aramaion, 2002ko uztailaren 8an

Izp.:



1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Maider Gonzalez Otxoa

Helbidea: Santakurtz kalea, 1- 2. esk.

Herria: Aretxabaleta

NA zk.: 12568467S

ADIERAZTEN DUT

Dagoeneko bukatu ditudala Eskoriatzako Jose Arana kaleko 8an dagoen merkataritza etxabea egokitzeko obrak, Miren Azkoaga arkitektoak idatzitako proiektuaren arabera. Honekin batera fatxadaren argazkia aurkezten dut, bai eta obra bukaerako ziurtagiria eta likidazioa ere, ikus-onetsirik gabe, baina 15 eguneko epean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsitako beste batzuek ordezkatuko ditut.

Hortaz,

ESKATZEN DUT

Aurkeztu dudan dokumentazioa jasota geratzeko eta, hala badagokio, irekitzeko lizentzia emateko.

Eskoriatzan, 2002ko apirilaren 2an

Izp.: 

D

Ibilgailuen gaineko zerga zuzentzeko eskatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Ibai Murillo Madariaga**Helbidea:** Buztinzuri kalea, 8-2.esk.**Herria:** Antzuola**NA zk.:** 14568467A **Tel.:** 943760011

AZALTZEN DUT:

2002ko zerga bilketan ibilgailuen gaineko zergari buruzko kanpaina datorrela eta, adierazi behar dizuet ez duzuela nire automobilari buruzko zerga behar bezala kobratzen, 10-12 zaldi fiskaleko ibilgailuetan barik 14tik gorako artean sartzen duzue eta. Nire automobila Seat 600 markakoa da.

Horregatik guztiagatik,

ESKATZEN DUT:


Orain bi urteko eta iaizko zergaren kopurua berraztertu eta dagokidana itzultzeko niri, eta bide batez aurtengoa behar bezala aplikatzeko. Eskatu dudana onartuko duzuelakoan, agur.

Antzuolan, 2002ko uztailaren 8an

Izp.: _____



1



ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Sara Otaño Maguregi**Helbidea:** San Pedro kalea, 7-2. ezkerre**NA zk.:** 15237751B**Fax:** 943767159**Noren ordezkari:****Herria:** Bergara**Telefonoa:** 943767159**E-posta:** sarao@euskalnet.net

Idatzi honen bidez baimena eskatzen dut Kultura Etxean erakusketa bat antolatzeko. Nire asmoa izango litzateke irailaren 15etik 30era bitartean erakus-
tea nire margoak. Guztira 30 koadro dira, 12 30x40 cm-koak eta gainontze-
koak 70x100 cm-koak.

Bergaran, 2002ko martxoaren 4an

Izp.:



1



2

Idatzi honen bidez baimena eskatzen dut Kultura Etxeko aretoan hitzaldi bat antolatzeko, Beti Gazte kultura elkartearen izenean. Hitzaldia abenduaren 10ean izango da, arratsaldeko 7etan. Hizlaria Pantxoa Egiagarai da eta "Gazteak globalizazioaren garaian" gaia jorratuko du.



Oposizio batean kanpoan utzi edo baztertu izanaren kontrako erreklamazioa

1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Amaia Villaverde Garitano

Helbidea: Antigua auzoa, 8-2.esk.

Herria: Antzuola

NA zk.: 24568467M

Noren ordezkari:

AZALTZEN DUT:

Udaltzainak hartzeko, Arrasateko Udalak deitu duen oposizio-lehiaketan onartu eta baztertu diren izangaien zerrenda argitaratu dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2002ko ekainaren 14an, eta kanpoan geratu naizenez, nire ustez ezelako justifikaziorik gabe, zer horretan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut eta.

ESKATZEN DUT:

Zuzentzeko onartu eta baztertutakoen zerrenda hori, eta sartzeko ni onartutako behin betiko zerrendan.

Eskatu dudana onartuko duzuelakoan, agur.

Antzuolan, 2002ko uztailaren 18an

Izp.:



Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Jone Zumalde Elortza

Helbidea: Zubibarra kalea, 1-3.esk.


Herria: Oñati



NA zk.: 11568467A

Atzo arratsaldean gure auzoko lorategiak hondatu zituen motor txiki batek. Ez da lehenengo aldia hori gertatzen dena. Izan ere, hainbat gazte ibiltzen da motorrean gure auzoan, orain espaloi gainean orain lorategietan. Udalak, ostera, ez du oraindik inolako neurririk hartu. Tamalgarria litzateke egun batean motor horiek haur bat harrapatuko balute. Hortaz, bada, gure auzo-
ra udaltzainak bidaltzeko eskatzen dizut.

Oñatin, 2002ko uztailaren 8an

Izp.: 



<p>1</p> <p>2</p>	<p>3</p>
<p><i>Idatzi honen bidez adierazi nahi dizuet lotsagarria dela Santa Barbara parkeko egoera, zikin-zikin dago eta. Izan ere, zakarrontzirik ere ez dago. Parke osoan –eta parkea handia da- lau bat zakarrontzi baino ez dagoenez, haurrekin jolastera joaten garen gurasook ez dugu zaborra nora bota.</i></p> <p>Arrasaten, 2002ko otsailaren 7an</p> <p>Izp.: </p>	<p>Idatzi honen bidez salatu nahi dut Dorleta auzoko erreka ondoko pasealekuaren egoera. Izan ere, pasealekuko horretako esku baranda apurtuta dago hainbat tokitan eta arriskua dago jendea errekarara jausteko. Kontuan izan pasealeku horretan adineko jende asko ibiltzen dela. Haurrak ere ibiltzen dira. Hortaz, bada, ahalik eta azkarren konpontzea komeni dela uste dut, ezer txarririk gertatu aurretik.</p> <p>Eskoriatzan, 2002ko irailaren 19an</p> <p>Izp.: </p>

H

Mahaiak eta aulkiak bide publikoan jartzeko baimena eskatzea

1

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Naiara Boizas Basauri

Helbidea: Espoloia kalea, 10-2.esk.

Herria: Bergara

NA zk.: 74000111X

OKUPAZIOARI BURUZKO DATUAK


Tabernaren izena: Legazpiarra

Okupatuko diren metroak: 50

Non egin nahi den okupazioa: Martokua, 7an

Noiztik noiz arte: ekainaren 1etik irailaren 30era arte

Bergaran, 2002ko maiatzaren 10ean



Izp.:



ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Ane Diaz Aizpuru

Helbidea: Kalebarren, 5-3. esk.

Herria: Antzuola

NA zk.: 11684067J

AZALPENA

Beheko auzoko 7an, IBILI zapata dendan, toldo bat jarri nahi dut erakusleihoaren gainean. Hauek dira toldoaren ezaugarriak:

Neurriak: 3 x 2 m

Materiala: lona

Kolorea: urdina

Honekin batera bidaltzen dut toldoa jarriko dudan tokiaren planoan.

ESKAERA

Goian esandako toldoa jartzeko baimena.

Antzuolan, 2002ko maiatzaren 10ean

Izp.:

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Ane Diaz Aizpuru', written over a horizontal line.



Hirigintza informazioa eskatzea

ESKABIDEA

ESKATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Beñat Lasa Aizpuru

Helbidea: Uribarren baserria, Etxaguen auzoa

Herria: Aramaio

NA zk.: 11554067T

ADIERAZTEN DUT

Honekin batera doakizu Nardeaga kalea, 8 eta 10eko eraikinetan dauden 2 lokalen kokatze planoak.


Hortaz,

ESKATZEN DUT

Lokal horietan bi apartamentu egiteko aukerari buruzko hirigintza informazioa.

Aramaion, 2002ko maiatzaren 10ean

Izp.:





ANTZUOLAKO
UDALA



ELGETAKO
UDALA



BERGARAKO
UDALA



ONIATIKO
UDALA



ARRASATEKO
UDALA



ARETXABALETAKO
UDALA



ESKORIATZAKO
UDALA



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA



LEIZORAKO
UDALA